# Xedapen Orokorrak

## GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA

### 3181

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko aginduarena: Agindua, 2005eko maiatzaren 25ekoa, Garraio eta Herri Lan sailburuarena, Garraio eta Herri Lan Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen ekainaren 1eko 155/1993 Dekretuaren 24.2.a) artikuluan xedatzen denez, testuingurutik erraz argitzen diren hutsak eta omisioak eta, ondorioz, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez dutenak, argitaratzeko agindua eman duen organoak konponduko ditu, nahasbiderik ez sortzeko komeni denean. Horretarako, testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2005eko ekainaren 14ko 111. zenbakidun Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Garraio eta Herrilan sailburuaren 2005eko maiatzaren 25eko Agindua, Garraio eta Herri Lan Sailak kudeatzen dituen datu pertsonalen fitxategi automatizatuak arautzen dituena. Aurreko paragrafoan adierazitako moduko hutsak antzeman direnez bertan, zuzendu egiten dira orain.

– Aginduaren eranskineko 2. puntuaren d) letran, 11395. orrialdean, honakoa jartzen duen lekuan:

«Eskatzailearen identifikazio datuak; ezaugarri pertsonalak; gizarte-inguruabarrak; merkataritza, ekonomia eta finantzen arloko informazioa, eta administrazioko arau-hausteak egiteari buruzkoa.»

Hau jarri behar du:

«Eskatzailearen identifikazio-datuak, ezaugarri pertsonalak, gizarte-inguruabarrak, merkataritza-informazioa, eta ekonomia eta finantzen datuak».

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

### 3181

CORRECCIÓN DE ERRORES de la Orden de 25 de mayo de 2005, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se regulan los ficheros automatizados de datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Transportes y Obras Públicas.

El artículo 24.2.a) del Decreto 155/1993, de 1 de junio, sobre el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto de la Orden de 25 de mayo de 2005, del Consejero de Transportes y Obras Públicas, por la que se regulan los ficheros automatizados de datos de carácter personal gestionados por el Departamento de Transportes y Obras Públicas, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 111, de 14 de junio de 2005, se procede a su oportuna corrección:

– En el punto 2 letra d), del anexo de la Orden, página 11395, donde dice:

«Datos identificativos del solicitante, características personales, circunstancias sociales, información comercial, económico-financieros y relativos a la comisión de infracciones administrativas.»

Debe decir:

«Datos identificativos del solicitante, características personales, circunstancias sociales, información comercial y datos económico-financieros».